

GABONAK

Gure aldizkaria illean bein baiño ez da argitaratzen eta orregaitik gizarteko barriak zar biurtzen jakuz argitaratzeko, baiña ez dot nai itzi igaroten gabonetako giroa irakurleen aurrean apur bat aztertu barik

KRISTO'REN AURRETIK

Euskalerrria erri zarra da eta Kristo ' gandiko fedea gugana etorri baiño lenago euskaldun lez bizi giñan.

Noz egin zan aldakuntza au? Itaun ederra ta garrantzitsua benetan, eta arlo orretan nik dakidan dana jakin gura ba'dozu irakurri egizu Milian izena daroan nire liburua.

Kristo'ren aurretik emen garrantzi aundia eukan eguztiak eta au gurtzen ei zan jainko lez, eta ez euskalerrrian bakarrik, orduko mundu osoan be bai.. Orregaitik, abenduaren 25-inguruan jai aundiak egiten ziran eguzkiaren gurtzarako. Or dauka oiñarria Gipuzkoan geiago ospatzen dan suaren oikuneak. Orrexegaitik agertzen da barriro, Euskalerrrian be bai, Donine egunean suaren oikunea.

OLENTZERO

Berrogei bat urte dira, artean ezagutzen ez genduan Olentzero eguna gure artera etorri zala, antza dagoanez Aralar menditik

Olentzero 'k siniste bakoien giroan dakar: Txokorra, zaatoa, txapela, sekua..., baiña kristiñau usaiña gaiñeratu jako. Ikazgiña ta basajauna izanik, bere laguna-kaz ikusi eban eurak Kismi esaten eutsoen Kristo etorrela, eta barri ori laiñoetatik artu eben. Bere lagunak aitzetik bera amildu ziran, baiña bera barri ori ekartera etorri zan errietara. Ez ekarren emaitzik, baiña barri ona

artzen eben etxeetakoak emoten eutsoezan eta ortik dator emaitzak banatzea.

Olentzero 'k ondo gertatzen dau giroa aspaldion gure errietan

Orregaz batera asko laguntzen dabe errietan ain ugari iziotuten diran argi gorriak.

GABON GABA

Gertakuntza orreik eraginda, pozez beterik urrertzen gara gabonetara eta Gabonak pozez beterik ospatzen doguz etxean naiz kalean naiz eleizan.

Orrelan, berez beti-bardiña dan urtearen joanean, zerbait barria sartzen dogu.

Urteko jairik pozgarriena izaten dala uste dot nik, Gabon gabekoa, maiatzeko pazkoetakoa baiño be pozgarriagoa.

Zergaitik dan ori? Bear ba ' da itxaropenaren ikurra daroalako eta gaur itxaropenaren bear-izan aundia dauka munduak.

Itxaropena bear dogu bakoitxak. Ondo dakigu lurretik atareak eta ezerezak garana, lur biurtzeko deituak garana, eta Jaungoikoa gure ondora eta gure bide-lagun etortea pozez artzeko gauzea da.

Itxaropena gure Euskalerrriarentzat. Badaukagu arlo onetan sendotasunaren bear-izana.

Itxaropena gure munduari begira: Geroago ta batua-godo dago baiña geroago ta nabarmenago agiri dira guda-arriskuak eta gosea

Ba-dauka ba itxaropenaren eta pozaren bear-izana gure munduak. Orregaitik ospatzen doguz ain egokiro gabonak. Gero gabon-zarrez batzen gara barriro urte barria itxaropenez asteko.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!